

# PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKOR

14-9-30 12.ALEA



## Fracking-a Zizurkilen?

4. ORR. ►►

Udazkeneko  
herri-lanak

2. ORR. ►►

Eskola garraoia  
zalantzan

6. ORR. ►►

Festen  
errepasoa

10. ORR. ►►

## ALBISTEA

# Herritarren egunerokoa errazten

Aldundiak emandako 68.000 euroko diru laguntzarekin, herritarren egunerokoa erraztuko duten hainbat lan egingo ditu Udalak udazkenean zehar.

Joxe Arregi Plazaren hiritartzearen antzeko proiektu handiak mesede dira herritarren bizi kalitaterako. Baina proiektu handi batek adina eragin dezakete herritarren egunerokotasunean hamaika lan txikik. Hori da Udalak udazkenean honetarako egin duen apustua. "Aldundiak 68.000 euroko diru laguntza bat eman digu, eta guk beste pixka bat jarrita, urgentziazkoak iruditzen zaizkigun zenbait lan egingo ditugu urtea amaitu artean", azaldu du Joxe Mari Luengo alkateak. Mugikortasunaren alorrean eragingo duten proiektuak dira.

## Pedro M Otaño plazako lanak

Azken alean aurreratu genuen bezala, Pedro Mari Otaño Plazan oinezkoei lehentasuna eman eta autoak plazatik kentzeko lanak egingo ditu Udalak. Obra honek hartzen du Aldundiak emandako diru laguntzaren zatirik handiena: 50.000 euro inguru (iaz egin zen aparkalekua barne hartuta). "Gure asmoa, zimiterioaren eta zuhaitzaren inguruan lur berria botatu eta banku batzuekin ingurua oinezkoentzako erreserbatzea zen. Proiektu hau ordea geldirik daukagu momentuz" dio alkateak. "Izan ere, plazako zuhaitzari kata bat egin behar



Tren zubia egokitu eta txukunduko da.

## Facilitando el día a día

Gracias a una subvención de 68.000 euros dada por la Diputación, el ayuntamiento de Zizurkil va a llevar a cabo unas pequeñas obras. Pequeñas, pero que incidirán notablemente en el día a día de los y las zizurkildarras. Uno de ellos, las obras para reducir el número de coches y dar

prioridad a los peatones en la Plaza Pedro Mari Otaño. El segundo proyecto, consiste en arreglar el puente del tren en Elbarrena. "Se pondrán unos paneles que tendrán una doble función: canalizar el agua para que no haya goteras e iluminar el túnel". En tercer lugar, se colocarán unos

badenes en la calle Muñoa con el objetivo de reducir la velocidad de los coches que pasan por allí. Por otra parte, el alcalde quiere hacer saber que los trabajos de renovar el campo de fútbol se están realizando en un buen ritmo. En total, tiene un presupuesto de 384.896 euros.

diogu bere egoera zein den jakiteko. Zuhaitzaren egoera txarra bada beratu eta zuhaitz berri bat landatuz bere ingurua txukunduko dugu;

konponketak. "Egoera txarrean dago. Itukin ugari daude, eta euria egiten duenean putzu handiak sortzen dira. Gainera ez dauka argiztapen egokirik",



Abiadura moteltzeko gailuak jarriko dira.

baina zuhaitza mantentzeko moduan badago, lekua mugatu bai, baina ez dugu lurra berrituko, epe labur edo ertainean ostera ere lurra txikitu beharko bailitzateke zuhaitza ateratzeko". Hilabete honetan bertan izango ditu Udalak zuhaitzari egindako azterketaren emaitzak. Horrekin batera, aparkaleku berria eta Zimite-rioko sarrera elkartzen dituen zebra bidearen parean marke-sina bat jarriko da.

## Tren zubiaren konponketa

Iaz Aizpurua inguruan egin ziren lanei akabera egokia emango dio tren zubiaren

diu Luengok. 15.000 euroko aurrekontuarekin arazo guzti horiek konpontzea espero da. "Panelak jarriko ditugu bideratuko dituzte, eta euren kolore argiari esker, argiztapen sentsazioa sortuko dute".

## Muñoa kalean baden-ak

Muñoa kaleko bizilagunen eskaerari erantzunez, bertatik igarotzen diren ibilgailuen abiadura murrizteko gailuak jarriko dira. "Udalaren eskumenekoa den errepidea da eta beraz, egin genezakeen zerbait. Bi baden jarriko ditugu. Bat Igartza auzo-arekin konekzioa egiten duen bi-

## Futbol zelaia, martxan

Eguraldi ona lagun, martxan onen doaz Futbol zelain belar artifiziala jartzeko obrak. Urbykolan enpresa Gipuzkoarra ari da lanak egiten. "Dagoeneko kendu dute gainazaleko lurbegetala. Hurrengo pausoa lur ongarriduna botatzea da. Geruza bat botatzen da aurrena, hau ondo zapaldu eta horrela, geruza dexente botatu behar dira dena trinko-trinkoa gera dadin. Ondoren urik ez filtratzeko tela antzeko bat zabalitzen da eremu guztian. Euri urak zelai inguruan joango diren kanaletara bideratuko dira. Gainazalean kortxo moduko bat jartzen da gero, eta azkenik honen gainean ezartzen da belarra", azaldu digu alkateak. Lan hauekin batera, argiztapen berria ere izango du zelaia. "Lau zutabe jarriko

dira bakoitza bere fokoekin". Guztira, 384.896 euro kostako da. Aldagelak berriz, ia prest daude. Barruko lanak amaitu dituzte. Baldosak, azulejuak, komunak eta ate berriak jarri dira. Orain sarrera berritu eta kanaloiak jartzea falta da. Luengo oso eskertuta agertu da "lan guzti hauek Danenako gurasoek egin baitituzte auzolanean eta materialaren gastuak bere gain hartu baititu Danenak". Denei eskerrak eman nahi izan dizkie.

Azkenik, futbol zelaiaren inguruan izan diren eztabaiden harira, gogoeta hau utzi nahi izan du. "Udal gobernu honek argi du Zizurkilen ezin duela zerbaitz edo azpiegitura gehiago galdu, lehen ere ez daukagu soberan eta. Hori defendatzea da gure betebeharra".

dearen parean, eta bestea Azken Portu plazara jaisteko malda hasi aurretik. Baden-ak finakoak izango dira, Joxe Arregi Plaza parean jarri dugunaren modukoak", aurreratu du. Gailuek eta dagokion seinaleztapenak 12.000 euroko aurrekontua dute.


## Saneamenduaren hirugarren fasea

Kelsen fabrika paretik Zubiarraxoko bidegurutzeraino lanean ari da Gipuzkoako Urak Agentzia. Ur saneamen-

duaren hirugarren fasea egiten ari dira. "Aurreko bi faseak Udalak ordaindu zituen, eta hirugarren hau Urakek ordaintzea justua dela adostu dugu", azaldu du Luengok. Bere hitzetan, azken fase hau oso garrantzitsua da, zentzua ematen baitio aurrez egindako bi faseei. "San Millan ingururitik datorren hoditeria berria Adunako kolektorearekin konektatzen du, bertatik igarotzen diren ur zikin guztiak bertara bideratuz".

# Fracking-a, lurpetik datorren mehatxua

Baimena lortuz gero, Zizurkilen ere egingo lirateke zundaketak



Gipuzkoan zundaketak egiteko baimena eskatu duten gunea oso zabala da.

Gehienontzat, oraindik, kontzeptu arrotza da Fracking-a. Lurpetik gasa ateratzeko sistema bat da, ohiko moduan atera ezin litekeen gasa ateratzea ahalbidetzen duena.

Ander Santesteban Zizurkilgo ingurumen teknikariak eman dizkigu azalpenak: "Lur azpitik ez ohiko gasa lortzeko erabiltzen den teknika da. Haitzak apurtuz bertan dagoen gas

naturala ateratzean datza. Horretarako, bertikalean zulatu behar da, gas erreserbak dituzten harri-formazioetara heldu arte, normalean kilometro bat eta 5 kilometro arteko sako-

neran egon ohi dira. Ondoren, horizontalean zulatzen jarraitzen da, 1.500 eta 3.000 metro inguru". Behin zulo hori eginda, likido bat sartzen da lur azpian. "Harea eta produktu kimikoak erantsita, milioika litro ur injektatzen dira presio handian, gas naturala biltzen duen haitza zartatzeko. Horrela, gasa askatu eta azalera arte igotzen da hoditik, urarekin eta osagai kimikoekin batera".

## Eskaerak Euskadin

Erauzketa sistema horren jatorria eta haren garapen teknologikoa Estatu Batuetan sortu zen 70. hamarkadan, baina Zizurkileraino ere iritsi da frackingaren oihartzuna. "Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi eta Petrichor Euskadi Coöperatief enpresek Landarre izeneko eremuan azterketa baimenak eskatu zituzten 2011. urtean. Eredu horrek 37.314 hektareako azalera du eta Tolosaldeari eragiten dio. Zizurkil (ikus irudia) eremu horren izkina batean legoke, eta bere azaleraren herenari eragiten dio, mendebaldeari, hain

zuzen ere". Berastegi Baserritik hasi eta Ierro zuzena eginez Eskaltzuraino, buztin bailara osoa hartuko luke zundaketak egin asmo dituzten eremuak.

Patxi Lopezen gobernua izan zen sistema hau Euskadira ekartzen saiatu zena, Arabara hain zuzen. Bertan, ordea, aurkako mugimendu handia sortu zen eta zundaketak egiteko baimena emana badago ere, oraindik ez dira zulatzen hasi. Zizurkil barnean duen eremua kasuan baimen zain daude. "Jaurlaritzak eman edo ukatu behar du baimena, momentuz isilik dago. Eztabaida handia eragiten duen kontua da eta momentuz behintzat ez dute baimenik eman", nabarmendu du Sanestebanek. Izan ere, Estatu Batuetan epaileak frogatuz ematen hasi dira Fracking-ak lurra eta ura kutsatu dituela eta herritarren osasuna kaltetu. Frantzia debekatuta dagoen sistema da baina Espainiako gobernua alde ageri da.

## Arrisku frogatuak

Baina zein dira Fracking-aren

arriskuak? Hainbat arrisku aipatu dizkigu Sanestebanek. "Lur azpian injektatutako likidoak ura kutsatzeko arriskua du, lurrikara edo sismikotasun arriskua ere bai, espezie eta bertako landaredian eragin zuzena izango luke. Izan ere, substantzia kimiko horiek inguru naturalera zabaltzen dira eta naturagune hori ezingo litzateke gero onera ekarri". Horrez gain, negutegi efektua sortzen duten gas isurketa, kutsadura akustikoa eta lur zoru zabal baten okupazioa aipatu dizkigu. "Lurralde oso zabalak behar litzukete zundaketak egiteko", zehaztu du. 2011n Europar Parlamentuak egindako txosten batek hitzez hitz dio "Isuri kutsagarriak eta lurpeko akuifero edo uraren kutsaketa" dakarrela Fracking-ak. Gasa erauzteko, 600 produktu kimiko ezberdin erabiltzen direla zehazten du txosten horrek.

Noski, sistema honek bestela lortu ezin den gasa erauztea ekarriko du, baina galdera argia da: zer da lehenetsi beharrrakoa?

«Zizurkilen azaleraren herenari eragiten dio zundaketak egin nahi dituzten eremuak»

## Zizurkilgo Udaltzako Fracking-aren aurka

Zizurkilgo Udaltzak "Fracking Ez" mugimenduaren mozioa onartu zuen ekaineko Udaltzako Mozio horrek Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi enpresa publikoari Fracking baimenak bertan behera uzteko eskatzen dio. Zizurkil "Fracking gabeko

Udalerrri" nahi duela ere azaltzen du. Era berean babesa ematen dio Fracking-aren aurkako herri ekimen legegileari. Bilduko zinegotziek babestu zuten mozioa, EAJK ez zuela babestuko adierazi zuen.

Udala hitzaldi edo informazio saioak antolatuzkotan da gaiak garrantzia berezia duelakoan.

## Fracking, la amenaza en el subsuelo

El Fracking es un para la mayoría un concepto desconocido. La fractura hidráulica o Fracking es un sistema que permite extraer gas del subsuelo. "Consiste en romper las pizarras o formaciones rocosas del subsuelo para extraer gas. Para eso, se agu-

jerea en vertical, hasta llegar a formaciones donde se esconden las reservas de gas, normalmente suelen estar entre un kilómetro y 5 kilómetros de profundidad. Después, se sigue agujereando en horizontal durante uno o tres kilómetros, y al final, se

inyecta agua a presión mezclándolo con arena y productos químicos para agrietar la roca y extraer gas junto con el agua", explica Ander Santesteban, técnico medioambiental de Zizurkil.


## En Zizurkil

Este sistema comenzó a utilizarse en los años 70 en Estados Unidos pero ha llegado hasta Zizurkil. "En el 2011, se pidieron permisos para hacer sondeos en varios lugares de Euskadi. Entre ellos está el llamado Landarre, que afecta a una tercera par-

te del superficie de Zizurkil". Los permisos están solicitados pero todavía no hay respuesta del gobierno vasco. "Es un tema que concita muchas dudas y de momento no han respondido a la petición. Sin embargo, en el caso de Araba, y así ha dado

el permiso". No debemos olvidar que las consecuencias del Fracking están en muchos casos, demostradas. "El líquido inyectado en el subsuelo puede contaminar acuíferos y tiene un efecto irreversible en las especies y el hábitat donde se practica"

Un informe del parlamento Europeo del 2011 da por probada que el Fracking provoca "la contaminación del agua del subsuelo y vertidos contaminantes". Según ese informe se utilizan 600 productos químicos diferentes en el proceso.



## ERREPORTAIA

# DBHko ikasleak garraio publikorik gabe

Institutua lau kilometroz azpitik daukaten ikasleak garraio zerbitzurik gabe utzi ditu Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, eta horrekin batera, jangelako diru laguntza ere kendu diete.

Aurtengo ikasturtea ez da lasaia hasi DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) ikasten ari diren ikasleentzat. Irailean, eskolak hasteko bezperatan jaso zuten Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren murrizketaren berri ematen zuen gutuna: Institututik lau kilometroko distantzitik behera bizi direnek ez dute garraiorik izango. Baina ez da hori guztia; murrizketa haratago doa oraindik: Garraiorik behar ez dutenez, ikastetxea etxetik gertu daukatela ulertzen da, eta hortaz, jangela zerbitzua ere ez dute beharrezkotzat jotzen; honenbestez, jangelako diru laguntza kendu egin zaie.

Villabonako Arratzain auzora joateko garraiorik gabe utzitakoak Amasa, Zizurkil eta Adunako ikasleak dira. "Duela urte batzuk egin zuen Jaurlaritzak arlo honetan lehenengo

murrizketa: Ordura arte DBHko ikasle guztiek zuten eskola garraioa. Baina, orduan, etxetik institutura bi kilometroz azpiko distantzia zuten DBH 3. eta 4. mailakoei kendu egin zieten zerbitzua. Geroztik, Elbarrenako DBH 1. eta 2. mailako ikasleak eta Zizurkil Goiko DBH osoko ikasleek izan dute soilik zerbitzua", azaldu du Joxe Mari Luengo alkateak. Oraingo murrizketa honek berri, bi zati ditu: Batetik, DBH 1 eta 2 mailako ikasleei, bi kilometroko distantzia-muga ezarri diete, ondorioz, Elbarrenako adin honetako ikasleek autobusez joateko aukera galitzen dute; bestalde, DBH 3. eta 4. mailako ikasleen kasuan, distantzia muga 2 kilometrotik 4ra igo dute". Azken egokitzapen honek Zizurkil Goiko 9 ume uzten ditu garraio zerbitzutik kanpo, ezarritako dis-

tantziak azpitik geratzen baitira euren etxeak.

## Momentuko soluzioa

Delegaritzaren murrizketaren berri jakin bezain laster, Ernio-bea Institutua, gurasoak eta bailarako udalak harremanetan jarri ziren, arazoari soluzio bat emate aldera, eta Jaurlaritzari bere asmoetan atzera egin zezan eskatzeko xedearekin. Delegaritzarekin hitz egin ondoren, akordio batera iristea lortu zuten, azkenean. "Autobusak berdin berdin hartu behar zituen Zizurkil Goian zein Adunako DBH 1 eta 2. mailako ikasleak, eta lau kilometroz gaindi bizi diren 3. eta 4. mailako ikasleak. Autobus horretan, nahikoa leku zegoen zerbitzutik kanpo geratu diren ikasleentzat, eta hauekin autobusa osatzeko baimena eman zuten delegaritzak", azaldu du

Joxe Mari Luengo alkateak. "Hori bai, honek ez du esan nahi murrizketa atzera bota dutenik; momentuko soluzio bat topatu da. Datorren ikasturtean ikasle kopurua igo eta autobusean sartzen ez badira, zerbitzutik kanpo daudenak garraiorik gabe geratuko lirarteke", gehitu du.

## Gurasoak haserre

Plaza Berri Zizurkil Goiko zein Elbarrenako guraso kaltearekin bildu da, eta murrizketak eragin duen haserrearen lekuko izan da: "Derrigorrezko hezkuntzaz hitz egiten ari gara. Eta gure umeak derrigorrezko hezkuntza egitera beste herri batera joatera behartzen badituzte, horretarako baliabideak jarri eta mantendu behar dituzte", dio batek. "Ni haserre nago, ez murrizketagatik bakarrik, murrizketa hori egin du-

«Gure umeak DBH egite-  
ra beste herri  
batera joatera  
behartzen ba-  
dituzte, horre-  
tarako baliabi-  
deak jarri behar  
dituzte»

ten moduak ere amorrarazten nau: udarako oporrak baliatuz, diximuluan egiten saiatu dira", gaineratu du bigarren batek. "Gezurretan ari dira hezkuntzan murrizketarik ez dutela egin esaten dutenean", gehitu du hirugarrenak.

Gurasoek azaldu duten beste aspektu bat legearen orokortasuna da: "Legeak berdinak dira donostiar baten-tzat eta zizurkildar baten-tzat, baina biak ez daude egoera

berean. Donostian, etxetik institutura bi kilometro egin behar badituzu ere, bidea hirartuta dago, argiztapen eta oinezko bide egoki batekin.

jakinda arratsaldera arte egon behar duela eskolan." Elbarrenan, DBH 3 eta 4 mailetan jada izan den zerbitzu galera salatzen dute. "Niri egokia iru-

bizitzarekin kontziliatzen. Nik nire semea ez dut aurrez azaldu dugun egoeran oinez bidaliko, bost kilotik gorako motxila bizkarrean hartuta, egunero



Zizurkilgo hainbat haur eskola garraio gabe gelditzeko arriskuan daude.

## Los alumnos de DBH sin transporte escolar

Los alumnos zizurkildarras que están cursando DBH no han comenzado el curso con buen pie. En vísperas de empezar las clases recibieron una carta notificando que los alumnos de DBH 1 y 2 que vivían a una distancia menor de 2 kilómetros del instituto no tendrían opción al servicio del autobús; igualmente, en el caso de los que cursan el 3

y 4 curso de secundaria, también les denegaron el mismo derecho si no viven a una distancia superior a los 4 kilómetros. Además, han restringido la ayuda económica del comedor. Al recibir la noticia de semejante restricción, el instituto Ernio-bea, los ayuntamientos de Aiztondo y los padres y madres no tardaron en reunirse para presionar al

departamento de educación del Gobierno Vasco. De este modo han conseguido una solución para este curso. "Algunos alumnos de Zizurkil Goia, que superan los 4 kilómetros de distancia marcados por educación, mantienen el derecho del transporte. En el mismo autobús caben todos los alumnos de Zizurkil y Aduna, y el departamen-

to les ha dado el permiso de usar el servicio", aclara el alcalde Jose Mari Luengo. Pero el problema y la restricción del Gobierno Vasco siguen en pie, ya que el próximo año, al ser más alumnos puede que no cupiesen en el autobús y tengan que ir andando. "Yo no enviaré a mi hijo al instituto andando desde Zizurkil Goia, con la mochila a la

espalda por un camino sin alumbrado, sin acera, lloviendo o con frío. Pero de la misma manera, por mi horario laboral no podría llevarlo en coche, así que, seguramente tendría que enviarlo a estudiar a otro centro", apunta una madre, que asegura seguir luchando contra este recorte.

Zizurkil Goitik Arratzainera joateko berriz, zati luze batean ez dago espaloirik, ezta argiztapenik ere", argudiatu dute. Beste behin ere, murrizketak herri txikiak edo landa guneko herriak kaltetzen dituela azpimarratu dute. Guzti horri udazken eta neguan egiten duen eguraldi traketsa gehitu diote: "Nik ez dut nire semea eguna oraindik ilun dagoela eurrutan eta hotzez lau kilometro oinez egin ditzan bidalik,

ditzen zait nire 16 urteko alaba eskolara oinez joatea, nahikoa autonomoak badira horretarako. Baina horrek ez du kentzen, nahi balu, autobusean joateko aukera izatea".

## Datorren urtean zer?

Aurtengoari soluzioa eman diote. Baina datorren ikasturtean zer? Galdera horrek izua eragiten die: "Eskola garraioa kentzen dute, baina gure lan ordutegiak ez dituzte familia

bideko arrisku guztiei desafioko eginez. Baina aldi berean, nire lan ordutegiarekin ez ingo nuke eskolara eraman. Autobus garraiorik gabe geratzen badira datorren ikasturtean, ziurrenik eskolaz aldatu beharko nuke", ebatzi du gurasoetako batek.

Egoerak eraginda, gurasoak, eskolak eta udal ordezkariak harremanetan jarraituko dute. "Helburua lehenengo egoerara itzultzea da, eta horren alde borrokatuko dugu".

## ALBISTEA

# Bukalai, dantzarako prest

Ikasturte hasierarekin, berriro ekingo dio lanari dantza taldeak.

Pozik agertu dira Bukalai elkarteak batzordekideak orain arte egindako bidearekin: "Gero eta jende gehiago ari zaigu batzen, aurretik gaudenak ere gustura gaude, eta Udalak ere laguntzen gaitu", azaldu dute.

Denboraldi batez lozorroan egon zen Bukalai pasa den urtera arte. "Hala ere, dantza taldea berreskuratzeko lanetan hasi ginela ia bi urte izango dira", gogoratzen dute Batzordeko kideek. Udalak aurretik zegoen dantza taldea bere gain hartzeko eta jarraipena emateko proposamena egin zien, eta eurek hartu, dantza taldeari nortasuna emanaz. 6 gurasok osatzen dute Batzordea, eta ekimena berriro martxan jartzeak burokratiazatik ere izan duen arren, gustura daude emaitzekin.

Izan ere, dantza taldeak ondorio positiboak dauzka, herriaren kohesioari eta haurren arteko harremanei dagokionez: "Gure herrian hiru eskola daude. Bateko zein besteko umeez urrutiko harremana zuten, eta ekimen honek eu-



Bukalai taldeko gaztetxoak dantzaldi baten ostean.

ren loturarako balio izan digu, bilgunea da eurentzat". Batzordekideak eta gurasoak ez dira gustura dauden bakarrik: "haurrek eta gazteek ere jarraitu nahi dute. Iaztik 70 lagun daude eta aurten gehiago izango dira". Hala, kanpora joan gabe, dantza talde ba-

**«Bilgunea da Bukalai Zizurkilgo eskola ezberdinetako haurrentzat»**

tean parte hartzeko aukera dute zizurkildarrek.

"Alurr dantza taldeak ere asko lagundu digu", azaldu dute. Hango dantzariak dira Bukalaiko irakasle. Luzera, Bukalaiko ikasle izandakoek erreleboa hartzea da helburu, transmisioa herrian bertan geratuz. Herritik kanpora ere mugitu dira, ordea, emanaldiak eskaintzera: Hernanira, Zaldibiara, eta Etxarri-Aranatzera, besteak beste.

4 taldetan banatzen dira dantzariak: 12-14 urte bitartekoak osatzen dute bata, 9-11 urtekoek bestea, eta 4-8 urtekoek beste bi taldeak. Atxulondon eta Otañon entseatzeko dute.

Urritik aurrera, honenbestez, Bukalai berriro izango da dantzarako prest.

## KRONIKA

# Urteroko festa handia hemen da

Urriaren 12an izango da XVII. Azoka Berezia

Krisiak krisi, orain arteko postu kopuruari eutsiko diote antolatzaileek. Artisau eta elikagai postuen artean, 50 stand inguru izango dira frontoian eta Teodoro Herandorena kalean. Horien artean egongo dira herriko artisauak ere. Eta nola ez, Zizurkilgo baserriarrek euren baratzetako onena ekarriko dute erakus-mahaietara. Herriko ekoizleen postu onenak jasoko du eguerdiko 13:00ean "Baserriko Argia" Posturik Onenaren Saria. Ohi bezala, autobusa ibiliko da doan Elbarrenatik Zizurkil Gora bidean. Zaldua pareko biribilgunean eta Zubiarretxoko bidegurutzean

egingo du geldialdia.

Azokan, aurtengo berrikuntzetako bat artisau berriak izango dira. Betiko artisautza postuez gain, gauza berriak ere izango dira. Tabakalera arte zentruko zenbait kide Zizurkilen izango dira eta egiten duten lana erakutsiko dute.

**Auzoak eta argazkiak**

Iaz emakume baserriarren argazki zaharrek egindako erakusketa ikusita, aurten modu bereko beste erakusketa bat egitea proposatu dio Udalak Herandorena Kultur elkarteari. Herriko baserrien



argazki zaharren bilduma bikaina egingo du Joxin Azkue herritarrek (Zizurkilgo Udalaren webgunean ikusgai) eta bertako argazki ederrenak erakutsiko dira, auzoka banatua. Izan ere, Herandorena elkarteak

auzoen banaketa zehaztea proposatzen du, ofizialki jasota gera dadin. Horrela, gaur egun Zizurkil Goian helbideetan agertzen diren Sakabanatuen ordez, toponimoi erreferentzia eginez auzoka banatuko litzateke herria, historikoki egin izan den gisan. Erakusketaren inaugurazioa azoka aurreko ostiralean, urriaren 10ean egingo da. Auzoen banaketaren inguruko azalpena emango dute Herandorena taldekoek eta jan edanak ere izango dira.

Bertako postuetan erosiz artisau eta baserriarrei laguntzeko deia egiten du Zizurkilgo Udalak. Gozatu azoka eguna!

## Bukalai, preparados para bailar

El nuevo curso empieza también para Bukalai, el grupo de baile de Zizurkil. Después de una larga temporada de parón, el año pasado empezó de nuevo su andadura. Los miembros de la asociación están muy satisfechos con los

resultados obtenidos este pasado año: reunieron a 70 niños y jóvenes, y este año serán todavía más. Además de lo relacionado al baile, la iniciativa tiene otros resultados positivos como una mejor cohesión del pueblo: los niños y jóvenes

procedentes de diferentes centros escolares se conocen y relacionan en las clases de baile. Los dantzaris se dividen en 4 grupos dependiendo de la edad y ensayan en la escuela Otaño y en la casa de cultura Atxulondo.

## 12 de Octubre, Feria Especial de Zizurkil

Como todos los años, el casco urbano de Zizurkil Goia se llenará de puestos de artesanos y baserriarres. Entre ellos estarán los productores y las productoras de Zizurkil que competirán por el premio "Baserriko Ar-

gia" al mejor puesto. Como novedad acudirán a Zizurkil artesanos innovadores del centro artístico Tabakalera. Además, la asociación cultural Teodoro Herandorena presentará una exposición de fotografías antiguas de

los caseríos de Zizurkil, organizados por barrios. Recordad que cada 5 minutos saldrá un autobús de Elbarrena que efectuará parada en Zaldua y en el cruce de Zubiarretxo.

## KRONIKA

# Jai paregabeak aurtengoak!

Nola Zizurkil Goian abuztuan, hala Elbarrenan irailean, bi festa batzordeek balorazio ona egin dute aurtengo jaien inguruan.

Abuztuan, Amabirjin jaietan jertsea aldamenean hartuta ibili ziren. Aldiz, iraileko Arantzazuko amaren jaietan arropa guztiak ziren soberan. Eguraldia aparte utzita ordea, bietan giro onean ospatu dituzte festak, eta bi egitarauetan izan dira plaza jendez bete dituzten ekitaldiak, tartean batzuk estreineko aldiz gainera!

## Plaza, festagune aparta

Elbarrenan berrikuntza nagusia aurten jaietan estreinatu den plaza berria izan da. Jaien erdigunea izan da zalantzarik gabe, eta ederki bete du festagune gisa bere funtzioa. Plaza handia izan arren, makina bat ekitalditan txiki geratu da. Pirritx eta Porrotx pailazoen emaldian adibidez, edota igandez sardina jatean, baita egun bereko arratsaldean erraldoi eta buruhandien konpartsarekin ere.

Zizurkil Goiko festetan ere plaza bete jende ikusi genuen Vendetta taldearen kontzertuan. Horretaz gain, jendetza bildu zen hain ohikoak diren herritarren arteko herri kirol saioan, idi-probetan, edota azken urteetan sona hartu duen mozorro gauerako herriko zenbait gaztek prestatzen duten antzerkian. Aurten gainera sari potoloa jaso zuten irabazte suertatu ziren ijito kuadrilak eta kleopatrak, bakoitzarentzako afari eder bat.



Kantu-jirako kideekin ibili ziren erraldoiak kalejiran.

Elbarrenan ere izan zen mozorro gaua, baina egitarautik azpimarratzeko ekitaldia aurten lehenengo aldiz Zizurkil bisitatu duen zezen suzkoa izan zen.

## Erraldoi eta buruhandi berriak

Bi jaietan lagun berriak izan ditugu aurten: Bi erraldoiak, eta hauekin batera, haurrei korri egin arazi dieten sorgina, deabrua eta melokotoia. Ikusmin handia sortu dute Zizurkilgo erraldoi eta buruhan-

di berriek, udalak, eta makina bat herritarrek uztailean zehar egin dituzte erlojuaren aurka, jaietarako prest egon zitezten. Eskerrik asko denei! Eta animo

lan urtearekin, melokotoia- ren lurperatzean apaiz jaunak esan zuten bezala, datorren urteko jaiak geroz eta gertuago ditugu eta!

## Unas fiestas sin igual!

Las comisiones de fiestas de Zizurkil Goia y Elbarrena coinciden en la valoración de este año: han sido unas fiestas difíciles de mejorar. En Elbarrena la nueva plaza ha cumplido todas las expectativas y en más de un

acontecimiento se ha llenado hasta arriba. Este año, por primera vez se han sumado a la fiesta los dos nuevos gigantes de Zizurkil, junto con los cabezudos que hicieron correr a los más jóvenes.

# Festak argazkitan

Goiko eta beheko festetako zenbait une bildu ditugu irudietan



Lehen egunean, herriko gazteek festa giroa baserriz baserri zabaldu zuten oilasko biltzearekin.



Umek lasterka egiteko abilezia erakutsi zuten.



Vendetta taldearen kontzertuan Pedro Mari Otaño plaza leporaino bete zen.



Bernarda Usabiaga herritarra omendua izan zen Elbarrenako jaien hasierako txupinazoan.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin plaza bete haur eta guraso.



Elbarrenan, tanbor soinuekin egin zuten irailaren 4 arratsaldean festarako deia.

# MARI JOSE ARANGUREN



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria  
Herritarren Parte Hartzeko  
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:  
SS-1118-2011

Harremanetarako:  
plazaberri.zizurkil@gmail.com  
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,  
Teodoro Hernandorena 6,  
20.159 Zizurkil.  
Tel. 943-691012  
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,  
20.159 Zizurkil.  
Harrera Orokorra  
Tel. 943-693066  
Kultura, Euskara, Hezkuntza,  
Gazteria y Kirola Saila  
Tel. 943692495  
Fax 943-693674.

## “Produzitzen gara onak; saltzen, txarrak”

Puntako ekonomia ikerlaria dugu zizurkildarra

**Ekonomialari izatea erabaki zenuenean, samurragoa al zen egoera?**

Antzekoa. 92an amaitu nituen ikasketak eta ikaragarriko krisia zegoen. Euskal Herrian %25eko langabezi tasa zegoen eta gazteen artean ia %50ekoa. Momentu horretan krisia sakonagoa izan zela uste dut, baina orain gertatzen ari dena luzeagoa.

**Deustuko Orkestra Lehiakortasun Institutuko zuzendaria zara. Nolako lana egiten duzu han?**

Orkestraren misioa unibertsitatean egiten den ikerketa lana errealitateko arazoei lotzea da: egiten ditugun analisiak problema jakin bat erantzuteko dira, ez ikertzaileak bere kabuz asmatzen dituenak. 33 bat lagun gaude *Orkestran*: nazio ezberdinetako kideak gara eta gauzak, askotan, ezberdin ikusten ditugu. Dibertsitate horrek ere asko laguntzen du gauza berriak ikasteko.

**Institutuan egiten duzuen lanak aipatzeko moduko iritzia onak jaso ditu...**

Lehiakortasuneko eta Es-

trategiako Institutua dago Harvarden, eta sare bat dute mundu guztiko 120 bat unibertsitaterekin: Deustuko ere sare horretan dago. 40 unibertsitate inguruk *Orkestraren* antzeko institutua sortu dute. Sare hau bultzatzen duen Michael Porterrek dio aldearekin guzuz garelako aitzindari: asmatu dugulako batez ere, agente ezberdinekin lan egitea eta ikerketako institutu eraldatzaile bat izatea. *Orkestraren* inguruan kasu bat idazteko proposamena egin ziguten Harvarden erabiltzeko.

**Zein da gure indargunea?**

Produzitzen gara onak, saltzen txarrak. Europan ezagutzen gaituzte industrian gauzak produzitzen onak garelako. Metalaren eraldaketan tradizioa daukagu. Energiaren alorrean ere enpresa potenteak daukagu, eta energiaren sektorea ondo garatua izateak, industriarena asko laguntzen du. Beste esparru berri bat, orain arte gutxiago landu dena, biozientziarena da: hemen emaitzak beranduago iritsiko zaizkigu. Industria sektorearekin konbinatu-

ta, ekonomia garatzen lagun dezake.

**Denok buruan daukagun galdera. Noiz arte?**

Zantzu batzuek diote buelta ematen ari garela, baina enpresa batzuk oso itota iritsi dira momentu honetara. Gauzak hobetzen ari dira baina oso poliki, eta enpresa batzuk oso ahul daude eusteko.

**Eskoziako eta Kataluniako galdeketen haritik, lurralde horien independentziak ekonomian eragin lezakeenak zeresan eman du. Euskal Herrian horrelakorik gertatuz gero, zer?**

Egia da ekonomikoki Espainiako beste guneekin alderatuta leku onean gaude la eta kontzertuarekin gure lehiakortasun maila positiboa dela. Elementu bakoitza ondo zehaztu gabe ezin da esan, ordea. Epigrafe asko dauzka analisi horrek eta batego zein besteko erantzunak jaso ditzakezu. Hor joan beste elementu batzuk daude: lurralde batekin dagoen konpromezu maila, gizartea, identitatea, kultura,... ez dira bakarrik zenbakiz kalkulatu diren elementuak.

**Esaiguzu...**

**Herriko pertsonaia bat**

Ixilean Zizurkilengatik lanean dabilen zizurkildar bat baino gehio.

**Txoko bat.**

Herriko plaza berria.

**Zer dago faltan edo soberan?**

Faltan denentzako lana, eta soberan, sufriarazten dituguten hainbat gaitz.

